



Urretxuko udala



***Urretxun enpresa-sorkuntza
sustatzeko eta enpresa-
lehiakortasuna hobetzeko
laguntzak emateko oinarriak. 2025***

ATARIKOA

XEDAPEN OROKORRAK

1 Artikulua. Laguntza deialdiaren definizioa.

Urretxuko Udalaren asmoa da herriko garapen sozioekonomikoan laguntzea.

Kontestu horretan, laguntza deialdi honek hiru helburu ditu: herriko ekintzaileei babesa ematea; enpresa eta dendei lehiakortasuna hobetzeko babesa ematea; eta hirugarrenik, izaera berritzailea duten eta egoitza soziala herrian finkatu nahi duten enpresa gazteak Urretxun sustraitu daitezen indartzea.

2 Artikulua. Deialdiaren helburua

Horrenbestez, oinarri hauen helburua da Udalak, bere eskumenen baitan, ekintzailletza eta enpresen lehiakortasuna sustatzeko asmoz egin duen diru-laguntza deialdia arautzea.

***Bases para la concesión de ayudas
para el fomento del
emprendimiento y mejora de la
competitividad empresarial en
Urretxu. 2025***

PREÁMBULO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Definición de la convocatoria de ayudas.

El propósito del Ayuntamiento de Urretxu es colaborar en el desarrollo socioeconómico de la localidad.

En ese contexto la presente convocatoria de ayudas persigue un triple objetivo: el apoyo a los/as emprendedores locales; el apoyo a las empresas y comercios para la mejora de su competitividad; y, en tercer lugar, el fortalecimiento del arraigo en Urretxu de empresas jóvenes de carácter innovador que deseen establecer su sede social en el municipio.

Artículo 2. Objeto de la convocatoria.

Por ello, el objetivo de las presentes bases es regular las ayudas que el Ayuntamiento, dentro de sus competencias, concederá para el fomento del emprendimiento y de la competitividad empresarial.

Programa honen bidez hiru lerro hauetako jardueretarako laguntzak emango dira:

- Jarduera ekonomiko edo proiektu berrien sustapena: jarduera ekonomikoaren ideia landu eta enpresa sortzeko laguntzak (ikus I. diru-laguntza lerroa).
- Ekintzaile berriei alokairurako laguntzak, euren ibilbideko lehen urratsak errazteko, eta horrez gain Urretxun hutsik dauden lokalen erabilera berreskuratzeko. (Ikus II. Diru-laguntza lerroa).
- Inbertsioetarako laguntzak (ikus II. diru-laguntza lerroa).

Atariko atal honetan daude zehaztuta deialdi honek arautzen dituen hiru diru-laguntza lerroen oinarri orokorrak. Diru-laguntza-lerro bakoitzari dagozkion oinarri zehatzak diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean daude zehaztuta.

3. artikulua. Eremua.

Laguntza hauek, orohar, Urretxuko udalerriko ekintzaile eta enpresentzat dira. Nolanahi ere, diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan daude zehaztuta lerro bakoitzeko onuradunak.

El presente programa de ayudas consta de tres líneas de ayudas:

- Fomento de nuevas actividades económicas: ayudas para la elaboración de la idea de negocio y constitución de la empresa o actividad (Véase la línea de ayudas I).
- Ayudas para el alquiler a nuevos/as emprendedores/as a fin de facilitarles los primeros pasos de sus trayectorias, además de recuperar para su utilización los locales que se encuentran vacíos en Urretxu (Véase línea de ayudas II).
- Ayudas para la inversión (Véase línea de ayudas III).

En este preámbulo se detallan las bases generales de las tres líneas de subvenciones que se regula mediante esta convocatoria. Las bases específicas de cada línea de subvenciones se recogen en sus correspondientes apartados.

Artículo 3. Ámbito.

Estas ayudas están destinadas en general a personas emprendedoras y empresas del municipio de Urretxu. En las bases específicas de cada línea se establecen las personas beneficiarias para cada línea.



Urretxuko udala



Diru-laguntza deialdira aurkezten diren pertsonak eta enpresek indarrean dagoen ekonomia, zerga eta lan arloko araubidea bete beharko dute.

4. artikulua. Diruz lagundutako jarduera eta inbertsioen epealdia.

Diruz lagunduko dira oinarri hauen 2. artikuluan zehaztutako jarduerak eta inbertsioak, 2025ean zehar gauzatzen direnak.

5. artikulua. Aurrekontu-kreditua.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzen bidez, guztira, gehienez ere, 17.000 euro emango dira, beti ere udal aurrekontuko 1000.471.433.00.01 2025 (5) kontu-sailetik, garapen ekonomikorako diru-laguntza lerroa.

Laguntza lerroa	Zenbatekoa
Enpresak sortzeko laguntzak	7.000 €
Alokairurako laguntzak	5.000 €
Inbertsioetarako laguntzak	5.000. €
Guztira	17.000 €

Aurkeztutako eskaera kopuruagatik, beharrezkoa izango balitz, zenbateko hau haunditu egin ahal izango da, aldez aurretik aurrekontuetan kreditu aldaketa eginda.

Las personas y empresas que se presenten a la presente convocatoria deberán cumplir las disposiciones en vigor en materia tributaria y laboral.

Artículo 4. Plazo de las actividades e inversiones subvencionadas.

Se subvencionarán las actividades e inversiones señaladas en el artículo 2.º de estas bases que se lleven a cabo durante el año 2025.

Artículo 5. Crédito presupuestario.

La cuantía total máxima de las subvenciones previstas en estas bases asciende a 17.000 € que se imputarán a la partida presupuestaria 1 1000.471.433.00.01 2025 (5) del presupuesto municipal, línea de subvenciones para el desarrollo económico.

Línea de ayuda	Cuantía
Ayudas para la creación de empresas	7.000 €
Ayudas para el alquiler	5.000 €
Ayudas para inversiones	5.000 €
Total	17.000 €

En caso de considerarse necesario, por el volumen de solicitudes recibidas, esta cantidad se podrá incrementar previa modificación de créditos presupuestarios.

Diru-laguntza lerro batean aurreikusitako kredituak agortzen ez badira edo diru-laguntza ematea onartu ondoren bertan behera geratzen bada (uko egin zaiolako edo baldintzak bete ez direlako), soberakina beste lerroetara pasako da.

6. artikulua. Deialdiaren iragarpena.

Deialdi hau eta oinarriak argitaratu eta iragarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Urretxuko Udalaren webgunean: <http://www.urretxu.eus> Era berean, diru-laguntza eskabidea egiteko ereduak eta zuriaketak egiteko eranskinak Udalaren webgunean argitaratuko dira.

7. artikulua. Eskabideen balorazioa eta lehiaketa.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Eskabideen balorazioa egingo da diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideen balorazioan berdin-ketarik gertatzen bada, eskabideen Sarrera Erregistroko hurrenkera hartuko da kontuan.

En el caso de que el crédito previsto para una línea de subvenciones no se agote a través de las ayudas concedidas o alguna de las ayudas concedidas no se abone por incumplir las condiciones de la misma o por renuncia de la persona beneficiaria, dicha cantidad se podrá transferir a las otras líneas.

Artículo 6. Publicación de la convocatoria.

La presente convocatoria se hará pública en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la web del Ayuntamiento de Urretxu: <http://www.urretxu.eus>. Asimismo, los modelos de solicitud y los anexos correspondientes a las distintas justificaciones se publicarán en la web del Ayuntamiento.

Artículo 7. Valoración de solicitudes y concurso.

Las subvenciones previstas en las presentes bases se otorgarán mediante concurso. La valoración de las solicitudes se realizará conforme a los criterios establecidos en las bases específicas de cada línea de ayudas.

En caso de empate en la valoración de las solicitudes, se tendrá en cuenta el orden de entrada de las solicitudes en el registro.



Urretxuko udala



8. artikulua. Eskabideak aurkeztea eta izapidetzea.

Eskaerak Urretxuko Udalaren Erregistro Orokorrean (Iparragirre 20, 20700, Urretxu) aurkeztu behar dira edo, nahi izanez gero, bide telematikoak erabiliz (Udalaren egoitza elektronikoa, www.urretxu.eus).

Hona hemen eskabideak aurkezteko epeak, diru-laguntza lerroaren arabera:

Laguntza lerroa	Aurkezteko epea
Enpresak sortzeko laguntzak	Oinarriak argitaratu eta biharamunetik 2025-12-22ra bitartean.
Alokairurako laguntzak	Oinarriak argitaratu eta biharamunetik 2025-12-22ra bitartean.
Inbertsioetarako laguntzak	Oinarriak argitaratu eta biharamunetik 2025-12-22ra bitartean.

Diru-laguntza lerro bakoitzaren atalean dago zehaztuta aurkeztu behar diren dokumentuen zerrenda. Nolanahi ere den, Urretxuko Udalak eta Balorazio Mahaiak beharrezko jotzen dituzten dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkiete eskatzaile nahiz

Artículo 8. Presentación y tramitación de solicitudes.

Las solicitudes se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento de Urretxu (Iparragirre 20, 20700 Urretxu) o bien a través de medios telemáticos (en la sede electrónica del Ayuntamiento: www.urretxu.eus).

El plazo para la presentación de solicitudes de cada línea de ayudas es el siguiente:

Línea de ayuda	Plazo presentación
Ayudas para la creación de empresas	Desde el día siguiente de la publicación de las bases hasta el 22-12-2025.
Ayudas para el alquiler	Desde el día siguiente de la publicación de las bases hasta el 22-12-2025.
Ayudas para inversiones	Desde el día siguiente de la publicación de las bases hasta el 22-12-2025.

En el apartado de cada línea de ayudas se indica la relación de los documentos que se deben presentar. En cualquier caso, el Ayuntamiento de Urretxu y la Mesa de Valoración podrán solicitar tanto a los/as

onuradunei diru-laguntzak onartu, zuritu edota ordaintzeko izapideetan.

Eskaera edo horrekin batera aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabea bada, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzeman diren akatsak zuzendu ahal izateko, Udalak egindako errekerimenduaren jakinarazpena egin eta biharamunetik kontatuta. Aipatutako epea igaro eta hutsuneak zuzendu ez baldira, diru-laguntza eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo da prozedura.

9. artikulua. Dokumentuak konpultsatzea.

Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren jatorrizko dokumentuen kopia konpultsatuak egingo dira Urretxuko Udalaren sarrera erregistroan (Iparragirre 20, 20700, Urretxu). Horretarako, jatorrizko dokumentuarekin batera kopia aurkeztuko da.

Eskabidea bide telematikoa bitartez egiten bada, dagokion erakundeak egindako dokumentu elektronikoak aurkeztu beharko dira.

solicitantes como a las personas beneficiarias todos aquellos documentos complementarios que consideren necesarios en los trámites de aprobación, justificación o abono de las subvenciones.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento, para la subsanación de los defectos detectados. Transcurrido el plazo concedido sin que éstos hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.

Artículo 9. Compulsa de documentos.

La compulsa de las copias de los documentos originales que se deban presentar junto a la solicitud se solicitará en el Registro de Entrada del Ayuntamiento de Urretxu (Iparragirre 20, 20700 Urretxu), presentando el original y la copia del documento en cuestión.

Si se realiza la solicitud por vía telemática, deberán presentarse los documentos electrónicos emitidos por la institución correspondiente



Urretxuko udala



10. artikulua. Datuak egiaztatzea.

Urretxuko Udalak, NISAEren Nodoren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Baita Urretxuko Udalak emandako dirulaguntza guztien administrazio-izapideak egiteko eskatzen den beste edozein ere.

Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. Artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administraziori emandakoak

Era berean, 40/2015 Legearen 155. Artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta

Artículo 10. Verificación de datos.

El Ayuntamiento de Urretxu mediante el Nodo de NISAE, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de todas las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Urretxu.

Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada, no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio

herriarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Urretxuko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu ematen dituen dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, NISAeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
- Foru Ogasunetik zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

Urretxuko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu Udalarekiko betebeharrak betetzen direla, erroldatze datuak eta Udalak berak emandako baimenak barne hartzen dituzten beste batzuk.

11. artikulua. Komunikazioak.

Eskabidea osatzeko errekerimendua, diru-laguntzak ebazteko jakinarazpena eta zuriak eta ordainketen inguruko komunikazioak posta elektronikoen bidez jakinaraziko zaizkio eskatzaile edo onuradunari (eskabidean adierazten duen posta elektronikoko helbidera bidaliko zaizkio). Halaber, onuradunek posta elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea osatzeko dokumentuak

de datos, debiendo facilitar los datos relativos a la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Urretxu va a verificar los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones que otorgue en las distintas convocatorias, desde la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, NISAE:

- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.
- Certificado de estar al corriente de sus obligaciones tributarias frente a las Haciendas Forales,

Las certificaciones de estar al corriente con el Ayuntamiento de Urretxu y los datos de empadronamiento u otros comprensivos de autorizaciones emitidas por el propio Ayuntamiento se realizarán de oficio.

Artículo 11. Comunicaciones.

Las comunicaciones relativas a la subsanación de documentación, a la resolución y aprobación de las ayudas y a las justificaciones y pagos de las mismas se remitirán a la persona solicitante o beneficiaria mediante correo electrónico (a la dirección señalada en su solicitud). Asimismo, las personas solicitantes o beneficiarias podrán remitir por el mismo medio la documentación requerida para la subsanación de la



Urretxuko udala



nahiz zuriketak egiteko eranskin eta dokumentuak.

12. artikulua. Datuen tratamendua.

Eskaera aurkezterakoan, eskatzaileak aitortzen du oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oso osorik onartzen dituela. Era berean, aitortzen dut eskaeran jasotako datu pertsonalak bere onespenez jaso direla.

Horrez gain, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeka abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, eskatzaileak onartzen du deialdi honetan araututako diru-laguntza eskaerak bete izanaren bitartez Urretxu Udalak lortu dituen datu pertsonalak bere titularitzapean behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea.

Era berean, pertsona interesdunek datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta haien aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, honako helbidera idatzia bidalita: Urretxu Udala (Iparragirre plaza 20, 20700, Urretxu).

13. artikulua. Balorazio Batzordea, diru-laguntzen proposamena eta ebazpena.

solicitud y los anexos y documentación de las justificaciones de las ayudas.

Artículo 12. Tratamiento de datos.

Al presentar la solicitud, el o la solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en estas bases y que las acepta íntegramente. Igualmente, manifiesta que los datos personales contenidos en la solicitud son recogidos bajo su consentimiento.

Además, el o la solicitante acepta que, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, el Ayuntamiento de Urretxu incorpore los datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de las solicitudes de ayudas reguladas en la presente convocatoria, a los diferentes ficheros debidamente autorizados de su titularidad.

Asimismo, las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos por la Ley, enviando un escrito en este sentido al Ayuntamiento de Urretxu (Iparragirre Plaza 20, 20700 Urretxu).

Artículo 13. Comisión de Valoración, propuesta y resolución de ayudas.

Balorazio Batzorde bat eratuko da diru-laguntza eskaerak baloratu eta diru-laguntzen proposamena egiteko.

Balorazio Batzordea organo kolegiatua izango da eta honako kide hauek osatuko dute:

Batzordeburu:

— Urretxuko alkatea.

Batzordekide:

— UGGASA Urola Garaiko Garapen Agentziako Enpresen Sustapen eta Laguntzarako arduraduna.

— Urola Garaiko Merkataritza Sustapeneko Bulegoko merkataritza teknikaria.

Idazkari:

— Urretxuko Udaleko idazkaria.

Diru-laguntzak ebaztea Urretxuko Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena izango da.

14. artikulua. Bateriaezintasunak.

Diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan daude zehaztuta diru-laguntza hauen bateraezintasunak.

Nolanahi ere, eta Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako

Se constituirá una Comisión de Valoración para la valoración de las solicitudes de subvenciones y elaboración de la propuesta de concesión de ayudas.

La Comisión de Valoración será un órgano colegiado y estará compuesto por los siguientes miembros:

Presidente de la Comisión:

— Alcalde de Urretxu.

Vocales:

— La responsable de Dinamización y Apoyo a Empresas de Urola Garaiko Garapenerako Agentzia (UGGASA).

— La técnica de comercio de la Oficina de Dinamización Comercial de Urola Garaia.

Secretario:

— La Secretario del Ayuntamiento de Urretxu.

El órgano competente para la resolución de las ayudas es la Junta de Gobierno Local de Urretxu.

Artículo 14. Incompatibilidades. En las bases específicas de cada línea de ayudas se establecen sus incompatibilidades.

En cualquier caso, y considerando lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de



Urretxuko udala



otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoa kontuan izanik, ezin izango dute diru-laguntza hauek jaso:

- Hautagaien aukeraketa prozesuan sexu arrazoiengatik bazterkeria erabiltzen duten elkarteak edo erakundeak.
- Gizonekiko berdintasunean emakumeen parte hartzea galarazten edo zailtzen duten ekintzak antolatzen dituzten elkarteak.
- Sexu arrazoiengatik bazterkerian erori direlako zigor administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, aipatutako zigorrak dirauen bitartean.

15. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea.

Oinarri hauetan jasotako diru-laguntzen ordainketa eta zuriketak egingo dira diru-laguntza lerro bakoitzaren oinarri zehatzetan zehaztutako moduan.

Diru-laguntzak banku transferentzia bidez ordainduko dira, beti ere eskatzaileak eskabidean adierazitako kontu zenbakian, 30 eguneko epearen barruan, ordainketa bakoitza egitea onartzen den egunetik kontatzen hasita.

febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán beneficiarse de estas ayudas:

- Las asociaciones u organizaciones que incurran en discriminación por razón de sexo en el proceso de selección de personas candidatas.
- Las asociaciones organizadoras de actividades en las que se impida o dificulte la participación de las mujeres en igualdad respecto de los hombres.
- Las personas físicas o jurídicas con sanción administrativa o penal por haber incurrido en discriminación por razón de sexo, durante la vigencia de dicha sanción.

Artículo 15. Abono de subvenciones.

El abono y justificación de las subvenciones recogidas en estas bases se realizará conforme a lo dispuesto en las bases específicas de cada línea de ayudas.

La subvención concedida será abonada, mediante transferencia bancaria, en la cuenta corriente señalada por la entidad o persona beneficiaria, en el plazo de 30 días a contar desde la fecha de aprobación del pago.

16. artikulua. Oinarriak ez betetzea.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Hori gertatzen bada, onuradunak jasotako diru-laguntzaren zatia itzuli egin beharko du eta Urretxuko Udalak eskubidea izango du dagozkion atzerapen interesak exijitzeko.

Halaber, diruz lagundutako ekimenak (enpresa sortzea, kontratazioak, inbertsioak, lankidetzak egitasmoak) ez baditu bete eskabidean adierazi eta diru-laguntza onartu eta emateko irizpideetan baloratutako ezaugarriak, honela jokatu da: lehendabizi, eskabidearen balorazioa berrikusi egingo da, diruz lagunduta burutu den ekimenaren ezaugarriak kontuan hartuta. Ondoren, balorazio berriaren arabera lortutako puntuazioa hartuko da kontuan diru-laguntza emateko ebazpena berresteko edo ukatzeko. Bigarren hori gertatzen bada, onuradunak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du, jasotako diru-laguntzaren zatia itzuli egin beharko du eta Urretxuko Udalak eskubidea izango du dagozkion atzerapen interesak exijitzeko.

Artículo 16. Incumplimiento de las bases.

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de las condiciones establecidas en las presentes bases conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, en cuyo caso deberá restituir las cantidades percibidas, pudiendo el Ayuntamiento de Urretxu exigir el interés de demora correspondiente.

Asimismo, si la persona beneficiaria en la ejecución de la actuación subvencionada incumple las especificaciones de la solicitud que hayan sido objeto de valoración para la aprobación de la misma, se actuará de la siguiente manera: se procederá a revisar la valoración de la solicitud, tomando en consideración la actuación ejecutada, tras lo cual, se ratificará o denegará la aprobación de la subvención, en función de la nueva valoración. La denegación de la ayuda conllevará la declaración de la pérdida de derecho a la subvención, en cuyo caso la persona beneficiaria deberá restituir las cantidades percibidas, pudiendo el Ayuntamiento de Urretxu exigir el interés de demora correspondiente.



Urretxuko udala



17. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Diru-laguntzak kudeatzeko izapideetan sortzen diren gorabeherak interpretatu eta dagokiona erabakitzeko eskumena Urretxuko alkateari dagokio. Nolanahi ere, gorabeheraren izaera kontuan hartuta, Balorazio Batzordearen iritzia jaso ahal izango da.

18. artikulua. Araudi aplikagarria.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako araubidea aplikatuko da: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) eta lege hori garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*).

19. artikulua. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Epea, bi kasuetan, hasiko da kontatzen deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Artículo 17. Interpretación de las bases.

Corresponde al alcalde de Urretxu la competencia para interpretar y, en su caso, resolver las incidencias que puedan surgir en los trámites de gestión de las presentes ayudas. En cualquier caso, teniendo en cuenta el carácter de la incidencia, se podrá recabar la opinión de la Comisión de Valoración.

Artículo 18. Normativa aplicable.

En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará la siguiente normativa: Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* del 18 de noviembre) y su reglamento de desarrollo, aprobado mediante Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* del 25 de julio).

Artículo 19. Recursos.

Contra la presente convocatoria podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o, impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo. Los plazos se contarán, en ambos casos, a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.

Diru-laguntza emateko ebazpenaren eta zuriketak onartzeko eta ordainketak egiteko ebazpenen aurkako berraztertze errekursoak Urretxuko Udaleko Alkatetzaren aurrean aurkeztuko dira.

Los recursos de reposición contra las resoluciones de concesión de las ayudas y de aprobación de las justificaciones y realización de pagos se presentarán ante la alcaldía del Ayuntamiento de Urretxu.